



kultura

sortzen dugu



BILBAO 700 • III MILELIUM

Sormena bultzatzen dugu eta zure eskuetan jartzen ditugu obra paregabeak, berriak eta klasikoak, behar-beharrezkoak.

Sortzailearen eskuetatik zure eskuetara.

Artea, pentsamendua eta musika guztiontzat. Mundu irekia.

Hau da gure kultura.

www.bbk.es


bbk =

MAHATSERRIKO ALDIZKARIA
berria

Lege gordailua: BI-85-98
ISSN: 1577-9025

2001ko EKAINA 34. zkia.
125 pzta.

*Mikel Alvarez,
mahatsorri bat
Everesteko
tontorrean*




betikoak



Morroko meategiko zaldiak

Gurean edonok dauko Morroko meategiaren barri. Mendebetez, 1970 urte ingurura arte, burdin minerala atara eutsoen aspaldin Larreagaburu esaten jakon menditxoari. Ba erretratu zahar horretan minerala lur azpitik kanpora garraioteko indar handiena egiten ebena daukogu, gizonezko biren artean. Zaldia, bai. Epifanio Aiestak kontatuten dauan lez, sasoi batean hogeita hamar pertxeroi euki ebezan korta eder batean. Horreik garai onak izan ziran. Gerra ostean, zortzi baino ez. Portzierto, Larreagaburu muino txiki horretan urkatu ebezan matxinada famatu bateko herri buruzagiak... baina hori beste baterako itziko dogu.

Landak itziziko argazkia



SANTUTXUKO JAIK 2001
Uztailaren 14tik 22ra



▶ Iritzia	4	▶ Mahatsberriak	20
▶ Ibilaldia	5	▶ Hezkuntza	24
▶ Begoña eta Euskerea	10	▶ Mendi Ibilbidea	26
▶ Santutxuko jaiak	12	▶ Kultura: Oihana Bartra	28
▶ Bakarka: Mikel Alvarez	15	▶ Horoskopoa/Agenda	30
▶ Inkesta	19	▶ Hileko Argazkia	31

Aldatzen kontua da hau dana. Otxarkoagako bat aldatz gora hasi ta aldatz barik lotu de, igon ta igon ta igon ta gorago ezin dan lekure ailegau de. Naturala, Otxarkoagakoa izanda kantsaute egongo zan ha bixi guztidxen aldatz gora ibiltan, baie ha kantsau barik afiziñoa hartu dotza kontueri ta gora ta gora hasi de goiko punterarte. Hori dok hori!

Baie kontue da gero Ayuntamientokoak-eta hareri omenajea egin dotziela, ta pentsaten dot hareik aiuntamientokoak apareju ederrak direzela. Hareik egundo bere ez daurie aldatza igoten ezta Begoñen bodan batera joateko bere (hareik restau- rentera direktamentien). Zer diñozue, esajeraue nazala? Esajeraue neu? Beitu, aurton akordau jakie ez dakitt zenbet urte direzela Deustu, Abando eta

Begoñe Bilbora batu zeuriezela, ta akordatie bere ez da gitxi, ze gugez asko ez dire akordaten, azkenengoan Bilbora arinago bajateko metroa ipini euskuenien. Baie oraingoan bere alperkeridxek hartu dotzie, kontue da pantaila handi batzuk ipini deuriezela hiru lekuetan lehengo errepublika bakoitzan historidxe kontetako-edo. Bata Deustun (Deustukoa, klaro), bigarrena Uribitarten (Abando-koa, ondo) ta hirugarrena (kagatelorito!), Begoñe-koa (mandakarallo!), nun eta Plaza Barridxen (andaaaaleeeee!). Horretarako bere ez direz kapaz ixen aldatza igoteko, alperra ixetie zer dan, gero! Edozelan bere, txarra bere ez da kontue, Iturribide eta Mallonako aldatzak hor dagozen bittartien horreinganik salbuen egongo gara, sikieran! Gora ta gora? Okurridu bere ez!

BEGOÑAKO ARREGI TOKI-IZENAREN
ESANGURAREN INGURUAN

Begoñako lurraldean dagoan Rikardo Arregi kalea lorategi-urriaren ganean dago, Matikon. Izan bere, kale horrek Uribarri eta Tiboli kaleak batzen ditu, Bilbotik Sondika eta Lezamara doan trenbidearen goialdean.

1980. urtea arte, kale honek beste izen bat izan eban, 1936ko guduaren gomutagarri zana: "Alferez de la Mano". Gaur egun, ostera, euskal kazetaritza barraren aurrendarietako baten izena hartu dau: Rikardo Arregi Aranburu.

Andoaingo kazetari hau 1942. urtean jaio zan eta, zoritxarrez, 1969. urtean hil zan auto istripu baten, 27 urte zituala. Bilbon ikasi zituan ekonomi zientziak, baina ikaslea zan garaitik eta karrera amaitu eta berehala oratu eutsen euskal hizkuntzari eta literaturari. Hainbat lan eta saio labur idatzi zituan, eta asko nabarmendu zan euskal gaien eretzeari.

Lan asko egin eban orduko euskal agerkaietan eta 1936. urteko guduaren eten zan kazetaritzaren kateari beste begi bat ezarri eutsen eta orduko modernotasunagaz lotu. Gaur egun, Andoaingo Udalak kazetari sariak emoten ditu idazle aurrendari honen gomutagarri eta ohoragarri.

Horrezaz ganera, Euskaltzaindiaren kide urgazlea izan zan. 1980. urtea, bestalde, garrantzitsua suertatu zan Bilboko kaleak izentatzeari jagokon legez, eze ordu arte frankismoaren garaian hainbat eta hainbat kaleri ezarri jakezan faxisten izenak kendu eta euren ordezkari euskal izenak eta euskal kulturagaz loturiko izentziak ezarri jakezan hareei kaleei.

GOTZON LOBERA REVILLA

ARBOLANTXA DORRETXEIA

Lerro hauek datoz Anton Larrazabal Etxebarria bezalako herritar eredugarrien kezkaen ildotik. Izan ere, berak eman zidan orain hilabete batzuk Arbolantxa dorretxearen berri.



Itxura guztien arabera, Arbolantxa familiak eraikiarazi zuen Bilbotik kanpoko egoitza gisa. Lehen gerra karlistan (1835) Zumalakarregik bere jardun militarretarako erabili zuen.

Gertakizun historikoak eransten dion balioaz gain badu beste bi horrelako eraikinetan ohikoak ez direnak ez direlako handi-handiak edo ez dutelako hornidura edo estilo deigarriak.

Arbolantxa dorretxea, Euskal Herriaren barrena dauden beste asko legez, kontu asko argitzen duten esanahi sakonen jabe da. Bere parajea Bilbo hiri handiaren ondoan dago gaur egun. Inguruetako beste dorretxeekin lotuta zegoen lurraldea antolatze gaurkoa ez bezalako modu baten barruan. Biderekiko kokapena eta orientazioa, eguzkiaren ibilbidea, barruko banaketa erabilpenen arabera, eraikitze modu eta lehengaiak...

Ezin ditugu horrelako eraikinak galtzen utzi. Inguruetako bizilagunok bere historia ezagutzeko eta bere defentsa egiteko betebeharrak daukagu. Horrela gure ondare arkitektonikorik hurbilena jagoko dugu: bertoko arkitektura. Jakina, gizartearen interes horrek administrazio guztien babesa behar du, ikerketa eta katalogaziotik hasita konserbazio eta zaharberritzeraino

IÑAKI URIARTE

**Bizkaiko Foru
Aldundiko
Kultura Sailak
diruz lagundutako
aldizkaria**



**Eusko Jaurlaritzako
Kultura Sailak
diruz lagundutako
aldizkaria**

ARGITARATZAILEA:
Batana Batu Kultur
Elkartea

ERREDAKZIOA:
Iturriaga 55, 1. ezk.
Bilbo - 48004
Tfnoa:
94 473 54 48
e-posta:
berton@euskalnet.net

ZUZENDARIA
Hektor Ortega
ERREDAKZIOA:
Arrate Diez,
Joana Etxebarria, Irune
Berro, Iratxe Ruiz,
Erdoitza Martínez
Unai Cuevas

ARGAZKIAK:
Iñigo Azkona eta
Xabier Herrera

DISEINUA ETA MAKETAZIOA:
Iñaki Berastegi,
Joseba Barrenetxea

KOLABORATZAILEAK:
Jaione Letamendia, Itxaso
Perez, Alberto Ugarte,
Iñaki Gaminde, Igor M.
de Vidales, Santutxuko
Bertso Eskola, Iñaki
Aurrekoetxea,

Joseba Zelaia,
Benito Fiz

**ADMINISTRAZIOA ETA
PUBLIZITATEA:**
Koldo Urrutikoetxea,
Zuriñe Martínez

LEGE GORDAILUA:
Bi-85-98

ALE KOPURUA:
1.200



Ibilaldiak Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza ekarri dio Abusu ikastolari

Jendetza ikaragarriak emandako babesaz
egingo du aurrera ikastolak

Testua: Iratxe Ruiz
Argazkiak: Iñigo Azkona

Maiatzaren 27ko hitzorduari milaka eta milaka lagunek erantzun zioten. Abusu aldeko parke eta zelaia jendez lepo egin arte bete ziren. Alderdi guztietatik heldutako babes uriola honi esker ikastola txikiak aurrera egingo du. Laguntza alor guztietan nabaritu da eta ikusi ere ikusi egingo da. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza ziklo abiatu berriari bultzada ederra emango zaio ikastolak garbi atera dituen 40 milioi pezetarekin.



**IRUDIA SORTZEN DUGU
BILBO**

Santutxu kalea, 46
Tfnoa: 944 333 935
Santutxu kalea, 37
Tfnoa: 944 128 714

www.bilbaoeb.com/Edro
E-Mail: iban.lopez@navigalia.com

**HORTZ KLINIKA
GERMÁN BERGARETXE**

GABRIELARESTI, 30 4. G
TXURDINAGA

94 412 82 74

O.P.E.: 039/97

CYBER TIME
Ordenagailua gurea da
ideiak, zureak

Sarean jolasak
Internet
Inprimaketa
Eskanerra
Datu grabaketa

Aita Pernet
48004 Santutxu
Bilbo

tfnoa/fax: 94 459 74 06
E-mail: cyber-time.euskalnet.net
http://www.cyber-time.euskalnet.net

Ibilaldiaren emaitzak oparoak izango dira, duda barik. Horixe da Abusu ikastolako arduradunen uste eta konfiantza. Eguraldia ezin hobea izan zen eta Abusura Euskal Herriko txoko guztietatik jendea andanaka hurbildu zen. Jaialdian 125.000 pertsona inguru parte hartu zutela estimatzen da.

Bizkaiko Ikastolen aldeko jaialdi honen 2001. urteko edizioak, esan bezala, balantze onuragarria oso izan zuen. Abusu Ikastolako arduradunek oso gustura daude euskaltzaleek emandako harreragatik eta balantze positibo hori hiru puntutan azpimarratzen dute.

Lehenengo eta behin, instituzionalki "erantzun potentea" izan zuen jaialdiak, mezu garbiki apustu egin zutelako, hain zuzen ere. Bigarren, Ikastolen eta orokorrean gizartearen erantzuna "bikaina" izan zen, euskalduntzea berpizten ari den proiektua dela begi-bistan geratu da eta. Eta azkenik, ospakizun benetan arrakastatsua izan zen. Aurreikuspen guztiak gainditu ziren 125.000ren bat pertsonen parte hartu baitzuten jaialdian.



"Ibilaldia ostean matrikula berriek gora egin dute"

ARRAKASTAREN ISLA

Hedabideetan izan zuen harrera goraiatzekoa da bestalde. Astelehen goizeko egunkariaren portada betetzen baitzuen Ibilaldiaren argazkietariko batek. Abusutarrek lortu duten 'garaipen' hau bai Ikastola barruko

ahaleginekin bai eta auzokideen laguntza eta esfortzuaz lortu izan da. Arrakasta honen ondorio nabarmena azken asteotan ikastolako matrikula deialdiak nabarmenki gora egin dutela izan daiteke. Horrela, Abusu ikastolaren proiektuaren berrindartzea tinkotuko da. Aurrera jarraitzeko arnasberritze legez definitu dute arduradunek



"Ateratako etekin ekonomikoek bigarren hezkuntza finantzatuko dute"

jaialdia, eta euskaldun heziketa sistemarenganako gizarte babesa gauzatu dela aitortzen dute aho batez.

EMAITZA EKONOMIKOAK

Egun osoan zehar eta aurretik emana zuten denbora eta esfortzu guzti hori bide batez sariztatzeko 40 milioi pezeta inguruko emaitza ekonomikoa lortu zuten. Zertan inbertituko duten diru hori? Beraiei galdetu eta duela pare bat urte derrigorrezkoa bilakatu den bigarren hezkuntza edo DBH Ikastolan ezartzeko bideratuko dutela jakinarazi ziguten. Izan ere, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza ikastolan sartu berria dago eta bultzada honi esker behar den bezala osatzeko moduan egongo dira. Hori egin orduko Abusuko ikastolak derrigorrezko hezkuntzako ziklo guztiak batuko ditu bere baitan. Orain bost urteko ikastola txiki hura ia konturatu barik handi egin zaigu.

ANTOLATZAILEEN ESKER ONAK

1994. urtean Abusun izan zen Ibilaldiaren emaitzak aurtengoekin parekatzean, aurtengoak askoz ere hobekoak izan direla diote duda izpirik gabe. Erantzuna bikainagoa izan da eta antolakuntzan ere hobekuntzak egin dira. Gainera, gizartearen beste egoera bat sumatzen dela gaineratu zuten.

Abusu edo La Peñako auzokideen laguntza ezinbestekoa izan dela esan dugu lehen, baina arduradunek auzoko mendizale taldearen laguntza eta Mahatserriko (zehazki Santutxuko) laguntza mesedegarria izan zaiela eskertu nahi izan dute: Karmelo ikastolaren laguntza, Gaztedi dantza taldearen partehartzea eta txosnetan aritu ziren hainbat lagunena lana, besteak beste.

Bukatzeko eta Ibilaldiaren edizio honek alderdi positibok gehienak direla azaldu ostean arazo txiki batekin topo egin zuten baita ere antolatzaileek: gerturatu zirenen garbitasun falta salatzen dute, bada ere inguruneak zaramaz eta plastikoz kutsatuta utzi baitzituzten. Dena den, hau arduradunen biharamunek garbiketa lanekin konpondu zuten. Izan ere, astelehenean futbolearen entrenatu behar zen auzoko taldeak ez zuen inolako arazorik izan eta antolakuntza taldea zoriondu ere egin zuten egindako lanagatik!

Begoña eta Euskerea

Begoñako etxeak XVIII. mendearen hasieran



Bolueta XVIII. mendean

Zentsu eta populazio zenbaketak ez dira bakarrik demografia historikorako datu-iturri. Sarritan aspaldiko toki-izenen barri emoten deuskue. Oraingoan 1704ko "foguera" izeneko zenbaketa hartu dogu Begoñako leku batzuk garai haretako izenez ezetuteko asmoz. Zoritzarrez, agiri zahar horretan ez dagoz bertoko izen gehienak. Baina badira batzuk, baserrietakoak edo auzo izenak. Bizkaiko Batzar Nagusiak emondako agindua beteaz, 1704ko abuztuaren 19an Begoñako fiellak -alkateak- herriko etxeen eta euren jaube, errenteru eta errenten barri emoten hasi ziran. Egun batzuk emon eben zeregin horretan eta, zorionez, euren beharraren fruitua gure eskuetara ailega da.

Eskribauak idatzitako paperetan, hogeita bi urte arinago, 1682an, eginiko beste zenbaketa bateko datuak dagoz. Berton sei auzotan banatuten dira mahatsorrioren etxeak: Uribarri, Zurbaran, Otxarkoaga-Arbolantxa-Azkarai-Bolueta, Las Calzadas y fuente de Askao eta Atxuri. Denetara 204 familiburu agertuten dira paperotan. Populaziorik handiena Otxarkoaga-Arbolantxa-Azkarai-Bolueta auzoan egoan, 56 auzo bertan bizi ziran eta. Zurbaran, ostera, jende gitxien batzen ebana zan, 18 familiburu baino ez.

1704ko zenbaketan auzo nagusiak dira Atxuri, Las Calzadas, la fuente de Askao, Otxarkoaga eta Uribarri. Baina auzo bakotzeko etxeen barri emotean beste auzo batzuk aitatzen dabez.

Holan, etxe bat "en el barrio de Iturriaga" dagoala esaten da, gaur egungo Santutxu aldean, jakina. Horixe bertan "el barrio de Gorostizaga" be egongo zan, izen bereko dorretxearen inguruan. Eta Otxarkoagako eremuetan, "en el barrio de Uribicoechea" etxerik be bazala aitatzen dau.

DORREAK


Ez dira gitxi etxeen artean dagozan dorretxeak. "Casa y torre" edo, bakarrik, "torre" izenakaz bederatzi agertzen dira. Boluetakoa da lehena, Gramosako markesarena. Geroago Basarratekoa aitatzen dau, Larrea izenez be ezaguna orduan famili horrena zalako. Segituan Gorostizaga eta Landaburu datoz. Calzadas auzoan Joseph Arrazolaren dorretxea egoan eta, jakina, Begoñako dorre printzipala, eleizaren ondo-ondoan, Begoñako patroiaarena. Zerrendan Zurbarango dorretxea, XX. mendera arte zutik iraun ebana, Uribarrikoa eta Aparicio Etxebarria jaunarena be badagoz.

ETXE IZENAK

1704ko zenbaketa Atxuritik hasi zan. Etxe bakoitza norena zan, nor bizi zan eta errentan zenbat ordaintzen eban azaldu eben. Askotan zenbat pipa txakolin produzitzen eben be apuntatu eben.

Atxuritik gora, Miraflores etxea aitatzen dau agiri zaharrak. Gero, Molino del Pontón, Bilboko Udalarena. Eta hortik salto Boluetara. Bertako dorretxea eta "el molino llamado Goikoerrot", dorretxea bezelaxe Gramosako markesarena zana. Ostein, Ibarsusi baserria eta Azkarai Bekoa, azken hori Osana Olabarria andrarena.

Beste batzuen artean Santutxu baserria be agertzen da, beste bat Bustintza izenekoa, eta lau gehiago Basarrate izenagaz. Hauen atzetik Landaberde baserria eta apur bat geroago Zabala eta Larrinaga.



Begoña, XIX. mendeko plano baten arabera

Calzadas auzoko etxeen barri emoterakoan, besteak beste Txafarriaga etxea agertzen da. Ez egoan bere baitan inor hartzeko moduan. Santo Domingo etxea be badakar zerrendak. Beste etxe batean irlandar erlijioitsuak bizi ziran. Eta Iriarte eta Artekoa izeneko baserriak be baziran.

Askaoko iturriko auzoan -gaur egungo Iturribide aldea- Latabilla izena be badago. Eta Otxarkoagan Garbide, Artalandio -izen horregaz etxe bat egoan gaur Txurdinagako parkea dagoan aldean, Losoño eta Larakoetxea -Larrakoetxea-, Azkarai eta Azkarai la de arriva, hiru Orueta -goikoa eta bekoa tartean-, Arana, Garai eta Errekakoetxea azaltzen dira. Azkenik, Uribarri auzoan Nabeda, Montaña eta herriko harategia egozan.

Honeek guztiak dira zerrendako izenak argi eta garbi dagozanak. Baina ezin dogu ahaztu foguera hauen funtzinoa dirua batzea zala. Horregaitik, egon zan datuak emon be emon gura ez ebana. Holanik esan eben sasoi haretako Begoñako arduradunek: "Adbirtiendose que en el barrio de Otxarkoaga faltan de numerar dos caserías por no querer dar sus ynclinos los nombres y apellidos de quienes son dhas casas y caserías"

GAZTEOK ETA KITTO KULTUR ELKARTEA SUSPERTU DA

MAIATZEAN HASI ZEN ATZERA ERE ABIAN GAZTEON FORMAZIO SOZIO-POLITIKOA BULTZATU NAHIAN

Gazteok eta kitto kultur elkarteak 1995ean sortu zen Santutxun. 1999ra arte gazteok elkartearen izen bereko taberna zeukaten topagune. Aurten berriro jarri dira martxan auzoko gazteen formazioan laguntzeko hainbat ekimen aurrera eramateko asmoz.

Testua: Arrate Diez
Argazkiak: Gazteok eta Kitto!

Talde suspertu berriak maiatzean egin zuen bere jendaurreko aurkezpena Sorgintxulo gaztetxean. Eurekin batu gara urteko hauetako errepaso egiteko.



Zertan dihardu Gazteok eta Kitto kultur elkarteak?

Gaur egun bizi dugun globalizazioaren ondorioz, gazteon artean formazio falta handia zegoela konturatu ginen. Sistema kapitalistaren eraginez zein espainiar eta frantses estatuak Euskal Herriaren historia eta kultura urratzeko egiten ari diren ahaleginen ondorioz, kultur elkarteetako auzoko gazteriar formazio aukera eskaini behar zaiola ikusi genuen. Eta horretan dihardugu.

Gazteriak gaur egun aukera gutxi du formatzeko. Gure

ustez, egungo sistemak ikasketak eta telebista eskaintzen dizkigu baina guk horri buelta eman nahi diogu, alternatibak eta formazioa eskaini, modu erakargarrian planteatuta, noski. Formazio horren ildoak independentzia eta sozialismoa dira.


Zein izan da taldearen ibilbidea orain arte?

Elkarteak 1995ean sortu zen eta auzoan taberna bat geneukan gazteen topagune moduan. Gure lan esparrua hori zen eta egindakoa auzora zabaltzen genuen.

Tabernan liburutegia zegoen, kontsultarako erabilgarri. Elkarteak sortu zenetik hainbat ekimen antolatu dugu.

Herrialde askorekin elkartasuna adierazteko asmoz, besteak beste Irlanda, Kurdistan zein Peruko errealitate politiko eta sozialaren berri eman nahi izan diogu auzoko jendeari. Horrela, filmak, hitzaldiak, jaiak eta bideo emanaldiak egin ditugu. 1998ko urtarrilean, esate baterako, Kurdistanaren gaineko aste kulturala prestatu genuen.

Gainera, euskararen aldeko jaiak, 60. hamarkadaren ingurukoak eta presoaren aldeko hainbat ekitaldi egin ditugu. Argazki erakusketak, filminak, gazte poteoak, panel informatiboak, ... era guztietako bitartekoak erabiliaz gure lana kalera zabaltzen ahalegindu gara, inkomunikazioa gazte sormenaz eta ilusioaz gaindituz.



Gaur zelan funtzionatzen du taldeak?

Taldekoak astero batzen gara Sorgintxulon. Talde eragileak zortzi lagunek osatzen dugu baina ekintzetan auzoko gazte gehienek parte hartzea dugu xede. Orain gure lan esparrua Sorgintxulon dago eta bertako batzarretan ere parte hartzen dugu, auzoko beste taldeekin berezko harremana daukagula. Sorgintxulo liburutegiari, adibidez, Txalapartaren bilduma, Kubako liburuak eta abar eman diogu... hainbat material dago auzoko gazteen eskura Gazteok eta Kitto elkarteak emanda.

Zelan egin duzue taldearen suspertzea?

Maiatzean Sorgintxulon elkartearen berraurkezpena egin genuen. Bertan Kittoren orain arteko ekimenak zeintzuk izan diren errepasatu eta hemendik aurrerako urratsak azaldu genituen. Ehunen bat gazte batu ginen eta aurkezpenaz gain bideo bat ere jarri genuen.

Zeintzuk izango dira hurrengo ekintzak?

Hemendik eta iraila bitartean auzoko jendea taldearen dinamikaren jakitun egitea dugu abiapuntua. Hortik aurrera, hilero gai baten inguruko ekimenak antolatu nahi ditugu. Hala, langilearen inguruan datu bilketa eta bideo emanaldia egin genuen maiatzean Sorgintxulon.

Santutxuko jaietarako Gazte Egunean kafe tertulia prestatu dugu, eta horrekin batera materiala salgai jarriko dugu ere. Irailerako auzo edo herri eskolak prestatzen hasi gara, eta urrian teoria politikoari buruzko eskolak antolatzeko asmoa dugu. Honetaz gain, Txalapartako liburu berriak argitaratzen diren bakoitzean aurkezpenak ere egingo ditugu.

Bazkide txartela

Izen deiturak:	ENA zenbakia:
Helbidea:	Herria: Posta kodea:
Telefonoa:	Lanbidea: Jaioteguna:



Partehartze mota:

- Bazkide soila
- Ekintza jakinetan laguntzaile
- Lantaldeko partaide

Ordainketa:

Kontu korrante bidez

Asapalaren kontuan

3035 0071 6 071 105864 2


Kuota korrante bidez

- 500 pta
- 1000 pta
- 2000 pta
- pta

ETENIK GABEKO FESTA!

Santutxuko jaiak auzoko bazterrak alaituko dituzte uztailaren 14tik aurrera

SANTUTXUKO JAIAK 2001 Uztailaren 14tik 22ra



Santutxuko Jai Batzordea


Urtero legez, ekainaren azken egunak igaro, ikasketak ahaztu, lana alde batera laga eta Santutxuko jaietan murgiltzen da Mahatserri osoa. Ez dira Santutxukoak hala-moduzko jaiak. Auzune osoa aritzen da prestatu beharrekoak apailatzen. Koadrilak dira jaiaren gatz eta piperra. Aurten ere, hala behar du izan. Mahatserria jendez beteko da uztailaren hamalautik aurrera, bederatzi egunetan zehar, hamaika ekitalditan parte hartzeko.

Testua: Erdoitza Martinez
Argazkiak: Xabi Herrera eta Iñigo Azkona

Egia da oraindik orain jai dezente dauzkatela santutxuarrek eta, oro har, mahatsorriok, ospatzeke, Mungiakoak eta Iruñeko San Ferminak esate baterako. Aitzitik, behin uztaileko bigarren asteburura ailegatuta, Mahatserriko karrketan dugu hitzordua denok. Santutxuko jaien hasiera ordua izango da eta, egon zaitezte seguru, ezer ez da faltako gurean. Zeintzuk erakunde arduratzen diren Mahatserriko jaien antolakuntzaz? Bada Santutxuko jai batzordea, Sorgintxulo, Iduna, Euskal Herrian Euskaraz, Eguzki, Santutxu Hockey Taldea, Santutxu Futbol Taldea, Amnistiaren Aldeko Batzordeak, Ikasle Abertzaleak, Sama Siku, Gaztedi Dantza Taldea, Kakitzat eta AEK. Agerikoa denez, hamaika gizarte eragilek batuko dituzte indarrak auzoko jaien presaketan.

KALE ANIMAZIOA NAGUSI

Basarraten egingo den herri-bazkariarekin hasi behar dira milurte berriko jaiak. Asebetzeko moduko jakiak irentsi eta karaokean eta play backean aritu ondoren, berehala, Gaztedi Dantza Taldearen esku egongo da pregoiaren irakurketa, jaiari hasiera ofiziala emango dion gertakaria. Jakina denez, Santu-



txuko dantzariak aurtan 50 urte beteko dituzte eta horrelakoak gutxitan gertatzen direla kontutan hartuta, pregoiaren ohorea euren eskuetan gelditu da.

**"GAZTEDI DANTZA
TALDEAK
IRAKURRIKO DU
JAIETAKO PREGOIA"**

ZURE PUBLIZITATEA

BERTON

94 473 54 48



**PRESOAK KALERA
AMNISTIA OSOA!**

SAAK

ADI
ASESORIA
FISCAL · CONTABLE · LABORAL
LABORCO · MERCANTIL

Oleta, s/n - 48970 BASAURI
Tel. 94 426 08 08
Txomin Garat, 4 - 48004 BILBAO
Tel. 94 411 08 55
adiasesor@adi.euskalnet.net

Zergak-lan harremanak
kontabilitatea juridikoa
merkatalgintza



**"ASTEAN ZEHAR
EGUNERO EKITALDI
BEREZI BAT
EGINGO DA"**

errepikatuko diren ekitaldiak. Aitzitik, lanegun bakoitzak ekitaldi berezi banak beteko du. Astelehen arratsaldean, magia saioa. Asteartean, auzoko taldeen kontzertua Basarraten. Hurrengo egunean, bertso saioa. Ostegunerako, Larrain dantza ikuskizun paregabea prestatu du antolakundeak. Azkenik, ostiralean, antzerki emanaldia Sorgintxulon.

Jai hasierako mezuaren irakurketaren ondoren, txistulari eta fanfarreen txanda izango da. Santutxuko jaien estreinako egunean, hauxe guztiak. Txosnak, azken urteotan legez, Basarrateko arboladien gerizan iminiko dituzte.

Igandeak gaztetxoeren dibertimendu eta gozamenarako aukera paregabeak eskainiko ditu. Goiz-goizetik, gargantuaren gorputzean barrena abiatzeko parada izango dute hurrek. Arratsaldean, berriz, umeentzako berbena prestatu du antolakundeak; Kroketa Sopa taldea ahaleginduko da Mahatserriko Karmelo enparantzan bildutako gazterien poza eta alaitasuna iraunarazten.


Lanegunen etorrerarekin batera helduko dira tute, mus eta partxis txapelketak, hirugarren adineko biztanleriaren gozamenarako. Horretaz gain, astean zehar, txistularirik, gaiterorik eta kale animaziorik ez da faltako. Aipatutako hauek astelehenetik ostiralera bitartean

ASTEBURURAKO IRADOKIZUNAK

Ekintza guzti hauek, lanegunei dagokionez. Astebururen etorrerarekin batera, berriz ere gaitero, txistulari eta fanfarreen txanda izango da, baita berbenetarako eta kontzertuetarako garaia ere. Basarrateko eszenatokian, Buitraker eta Marea arituko dira nor baino nor zaletuen aurrean.

Igandea, Mahatserriko jaien azken eguna bilakatuko da. Honez gero, askok eta askok ezertan ibiltzeko gogo denak galduak izango dituzte. Ospakizunak noiz amaituko zain biziko dituzte askok jaien azken orduak. Lotara joateko asmorik ez da faltako, jende gazteenaren artean batik bat. Ez ordea. Igande gauaz, ur guda egiteko parada izango du Santutxun bizirik dirauen arima orok. Gorputza dezente busti eta etxera, azkenean ohean etzan eta amets egitera... Mahatserrikoak, etenik gabeko festak izango dira ezberrik gabe.

**e
l
k
a
r
r
i
z
k
e
t
a**



MIKEL ALVAREZ:

**"Euskaldunok
munduko
mendizaleta-
sunaren
aitzindariak
gara"**

Mikel Alvarez Everesteko gailurra zapaldu duen lehen bizkaitarra dugu. Maiatzaren 23an egin zuen, beste euskaldun batzuekin batera. Mendizale hori Otxarkoagakoa da, 40 urte ditu eta 17 urtetik aurrera Iruñean bizi da. Hango gaztainasaltzailea izan da eta gure bazterretatik ere ibilia da Aste Nagusian Areatzan -Arenalean- dagoen Zapiain sagardo txosnaren jabea delako. Euskaraz ere zeozer badaki, bere seme-alabek baino gutxiago, San Fermin ikastolan ikasi dute eta. Mahatsorri horrek bere balentria osoaren berri eman digu, baita azaleko argazki dotorea ere, Everesteko tontorrean "Otxarkoaga" ere egon dela frogatzeko. Adiskidetasunaren espedizioan joan zen, Julen Reketa eta Patxi Goñigaz batera. Bere mendizaletasunak munduko bazter guztietara eramán du. Orain Ginea-Papuako Castle piramidaren menengo eta Antarktidara gero zelan joango den pentsatzen ari da.

*Testua: Hektor Ortega
Argazkiak: Iñigo Azkona.*

Azaleko argazkia: Mikel Alvarezk utzita



**Bertoko euskaltzaleon
topagunea eta elkarte
egin guran gabilza**

**Zeuk ere euskararen ardura badaukazu,
batu gurera!**

Hemen gagoz:
Iturriaga 55, 1. Ezkerra
Tfnoa. : 944735448
E-posta: asapala@eusnet.org

Zelan egiten da Otxarkoagatik Everestarako bidea?

Ja, ja. Bueno, ez du ardua non goa zaren, zelakoa zaren baizik. Egia esanda nire kasuan badu garrantzirik Otxarkoagan bizi izanak. Hamabi urteko mutila nintzela auzoan Beti Argi mendi taldea zegoen, Don Fermin abadearen eta Morales jagolearen eskutik. Hor jaio zen neure mendizale-tasuna. Gainera, Pagasarri hurrereko mendia zen niretzat, aiti-te-amamaren etxea Larraskitun zegoen eta.

Eta sarritan joaten zinen...

Orain urte bi Cho-Oyura joan orduko kazetari batek bihotzean zein mendi geneukan galdetu zigun eta neuk: "Pagasarri". Han Iruñean danok harrituta, jakina, ea ze mendi zen hori.

Baina zeu gero mendiari lotuta segitu zenuen edo etenik egon al zen?

Etena dago. Auzoan lanean hasi nintzen, baita gizarte gaietan murgildu ere. Beste zereginetan ere ibili nintzen, AFOko saski baloi taldean esate baterako...

Orduan Iruñera iritsitakoan mendizale-tasuna baztertu zenuen...

Bai. Bakarrik Pirineotara txango batzuk eta Etxauri, ondo-ondoan dagoelako...

Noiz erabaki zenuen atzera be mendian serioago ibiltzea?

1997an, Aconcaguara joatea deliberatu nuenean. Artean ez nengoen 3.500 metrotik gora ibilita. Oso latza izan zen. Hasieratik altuera-gaixoa pairatu nuen. Txiripaz heldu nintzen goraino, heldu behar nuelako. Baina sufrimendu handiaz eta behin tontorrean botaka. Edema hasiera neukan. Nirekin zetorrenak arriskurik ez zegoela esan zidan. Neu fidatu nintzen eta egin genuen. Orduan kontinentetako zazpi gailur altuenak egiteko ideia sortu zen. Urte hartako maiatzean Mont Blanc igo nuen. Igoera ikaragarria egin nuen eta mendirako balio nuela pentsatu nuen.

Eta gero...

Urte hartako irailean Elbruz igo nuen, Kaukason. Igoera gogorra bene-benetan. Bilboko Aste Nagusiaren ostean, gainera...

Jakina, prestakuntza horrekin...

Bai, ja, ja. Gero 1999an Cho-Oyura joan nintzen. Agustín Lopez bilbotarraren istripuaren urtea izan zen. Neuk kordada horretan nindoan eta 7.900 metroan atzera egin nuen, zeozker esaten zidalako gauzak ez zeudela ondo. Jota jaitsi nintzen. Segituko ote nuen zalantza piztu zitzaidan, Cho-Oyu Everestarako entrenamendu gisa prestatu nuen eta. Baina beti aurrera. Urte hartantxe, orduan ere Aste Nagusiaren ostean, Cervino eta Kilimanjaro igo nituen arazorik gabe.

Kilimanjaro be zazpi tontor horien zerrendan dago...

Hala da. Berehala Iruñeko entrenatzaile batekin hasi nintzen, Javier Zuñigarekin hain zuzen. Bera da Iñurategitarak pres-



tatu dituen. Bi urteko prestakuntza erabaki genuen tartean McKinley igota. Iaz egin nuen, maiatzean. Hori goera latza! 44 gradu zero azpitik! Eta gero Everest...

Eta zelan egiten da Everestara igotzeko prestakuntza?

Maratoilariarena bezalakoa da. Bakarka, bi-hiru ordu egunero eta egun bat libre astean. Euria, txingorra edo eguzkiarekin egunero kalera atera behar da...

Korrika egitera?

Korrika egitera eta mendira igotzera. Lehenengo korrika pul-sazio altuak ahalik eta luzeen mantentzeko. Gutxika-gutxika zoaz. Ordu eta erdiz 165 pul-saziotan korrikan arituta nago. Eta mendian gora, berdin. Mendiak igo ditut 170 pul-saziotan. Edo igo eta jaitsi bost bider egunean 15 kiloko motxila batez. Hori dana gihar zuria garatzeko, gihar zuriak indar gutxiago baina erresistentzia handiagoa duelako.

Eta noiz zaude Everest erasotzeko prest?

Bi hilabete falta zirela belaunak lar kargatuta euki nituen. Plangintza osoa pikutara! Korrika egiteari utzi eta bizikleta hartu nuen. Oso latza izan zen. Une kritiko hartan prestakuntza aldatzea erabaki genuen eta ondo irten zitzaigun.

Eta noiz erabakitzen duzu badela joateko unea?

Neuk nekien gauza bakarra zen 2001eko udaberrian Everestara joango nintzela. Norekin? Ez. Nondik? Bost hilabete falta ziren arte ere ez.

Adiskidetasunaren espedizioa sortu zen..

Espedizio txikia, hiru baino ez ginen. Eta ekonomikoki ere apal, geuk aurreratu dugulako dirua, Udalek emandako laguntzak izan ezik. Nire kasuan Bilboko Udalak baimena ordaindu zidan baina gainerako guztia nire patrikeratik urten du.

Eta espedizioa prestatzea, arlo burokrati-koa, nork egin du? Zeuok?

Ez. Felipe Uriartek, zortzi milako mendiak egindako beterano batek, lagundu digu. Elkarte bat dauka han, Mendiak eta Herria. Hango agentzia batekin egin ditu egin beharreko lanak. Sherpak aukeratu, esate baterako, funtsezkoa baita sherpak profesionalak eta jatorrak izatea...

Zein da sherpekiko harremana gero?

Lagun artekoa. Zaila da eurak ez direlako gure mahaiaren inguruan esertzen, begirune handiz tratatzen zaituztelako... Baina badago lagun arteko giro hori beharrezkoa delako. Eurak eta geuk bizitza arriskatzen dugu...

Zelan zeukan izena?

Lakta.

Zein da zehazki sherparen eginkizuna?

Batez ere, alturako zelaia antolatzea eta gailurrera zoazenean zurekin joatea. Tontorrera bakarrik joan beharrean sherparekin zoaz. Eurentzat ere prestigio kontua da. Han goian oso zaila da beste inork zeu laguntzea denok indarrez justu-justu gabiltzalako. Sherpa eta biok bata bestea laguntzeko gaude.

Zenbat denbora eman zenuten Nepalera heldu zinenetik Everestara joan arte?

Martxoaren 23an atera ginen hemendik. Kontu luzea izango zela jakinda, Island Pic (6180 m) igo genuen. Oso mendi ederra. Bost ordutan egin genuen eta aklimatazio gisa balio izan zitzaigun. Maiatzaren 10 eta 12 bitartean jo nahi genuen gora baina azkenean

23an egin genuen. Luze egiten zaizu eta gaixotzeko arriskua dago, niri gertatu zitzaidan bezala...

Zer gertatu zitzaizun?

Maiatzaren 10ean gaixotu nintzen. Katarro txikia baino ez zen baina nire kideak gorantz joan ziren eta neuk ez nuen aukera galdu nahi. Urduri nengoen. Zelai-basean katarroa zena zelai-2an pulmonia bihurtu zen. Han egun bi eman nituen gaixorik. Txarto, benetan. Zelai-basera jaitsi behar izan nuen, tontorrera heltzeko asmoa utzita. Kideak tontorrera joan ziren bi egun beranduago, zorte on opa nien eta neure aukera galduta zegoela pentsatu nuen. Baina lau egunetan erre-kuperatu nintzen. Errezeta? Mantzani-baoak, samarako pilulak eta dendatik ez urten. Behin osatuta, gorantz jo nuen eta zelai-2ra heltzean nire kideak zelai-4ra iristekotan zeuden. Ginebratarren espoloira heldu ziren baina haize bortitzak atzera bota zituen. Horren ondorioz denak Zelai-2an batu ginen eta hortik behera jo genuen atzera be. Bihamunean hirurak irten ginen eta tontorrera heldu ginen.

Igoera horretan, azkenean, zeu sherparekin bakarrik gelditu zinen...

Bai, 8.500 metroan. Seguru asko nire kideak aurreko ahalegina eginda zeudelako edo, neu indartsuago nengoen. Balkoira heltzerakoan neuk gorantz jo nuen. Bakoitzak bere erri-tmoa eraman zuen. Neu ederto nengoen. Gaua izarrez bete-ta zegoen, haizerik ez.... kemenez gainezka nengoen. Gau magikoa zirudien.

Ze ordutan irten zineten?

Normalean gaueko hamarretan atera ohi da. Gau hartan jendea arinago hasi zen oso eguraldi ona zegoelako. Gauerdian irtenda tontorrean ordubietan baldin bazaude zail samarra da itzulera bostetatik aurrera iluntzen delako. Sherpek, oso urduri, abisua eman ziguten jendea bederatzita eta erdietan hasi zelako gailurrerantz.

Zenbat jende zebilen hortik?

Gau hartan hogeita hamarren bat lagun ioian gure aurretik. Argi ilara bat ikusten genuen. Niretzat zoragarria zen, berezi-berezia. Ilara horretan sartzea oso hunkigarria izan zen. Gero batzuk bazterretan gelditzen hasi ziren, okerrago zebiltzalako edo.

Eta azken metro horiek zelan?


Balkoitik gora sherpa nire atzetik bost sei metrotara zetorren. Gure gainetik bi eskaladore zebiltzan eta harri handi bat jausi zitzairen. Neuk eskibatu nuen baina sherpa besoan jo zuen. Kolpe latza izan zen. Dena kolokan zegoela pentsatu nuen, sherpa beharbada erretiratuko zelako. Igurtzi batzuk egin zituen besoan eta azkenean aurrerantz segitu zuen. Berrogeita hamar metrotara txokolata eta ura hartzeko gelditu ginen. Begiratu nion. Ondo zegoen. "Gorantz?" "OK". Eskaladorei abantaila eman genien Lhotseko horman harriak eta izotz zatiak erruz jausten direlako. Goizeko bederatzia eta laurde-nean tontorrean geunden. Lehenengo hegoaldeko gailurra igo eta, Hillary eskaloian legez, beste mendizale batzuk pasa arte itxaron behar izan genuen.

Zer sentitu zenuen gailurrean?

Bueno, urduri eta pozik baina ia ez duzu disfrutatzen ze berehala hasi behar duzu beherantz. Hodeiak azpitik zeuden eta ez duzu identifikatzen banan banan, hori Cho-Oyu, bestea... buruak ez du gehiagorako ematen.

Jaitsiera zelakoa izan zen?

Gogorra, Hillary eskaloian trabatu nintzelako. Lau soka zeu-





ez zegoen inor. Espainolik ere ez. Eta Juanitogaz berbetan hasi nintzen eta hor bere hurrengo planen gainean solasean egon ginen...

Han goian hurrengo planak komentatzen?

Bai, bai. Zein tontor egin nahi dituen. Hurrengoa Mckinley igo gura du. Baina gero izozte arazoak euki ditu eta horregatik ez ei da Mckinleyra joango. Castle piramidara elkarrekin joateko ideiaz hitz egin genuen... Eta gero besarkatu ginen eta sagardoak edateko hitzordua jarri genuen.

Zure kideak ere tontorrera heldu ziren...

Apur bat beranduago. Neu itxaroten egon nintzen baina hogeita minutu pasatuta itzultzea erabaki genuen. Bidean topatu genituen Julen Reketa laudiotarra, Edurne Pasaban tolosarra eta Patxi Goñi iruindarra. Edurne hunkitu zen, oso, baze-kielako gaixorik egon nintzela eta ez zuen sinisten. Inork ez zuen espero jaisten zen hori neu izango nintzela, hain gaixo egon nintzen aurreko egunetan.

Zelan izan zen gailurrean Otxarkoagako kartelarena?

Pentsatuta neukan hemendik irten baino lehen. Eta gainera, lagun batzuei berba emanda nengoen eta hitza bete behar da.

Azken urteotan euskaldunek tontorrik altuenak igo dituzte. Euskal mendizaleetasunak munduan toki garrantzitsua al du?

Bai, baina Everestera duela bederatzita urte igo zen azken euskalduna.

Aurten arte...

Bai, baina hori esan beharra dago jendeak ez dezan pentsa erraza denik. Baina egia da euskaldunak mendi tontorrik latzenetan eta biderik gaiztoenetan gaude. Munduko mendizale-letasunaren aitzindariak gara.

Eta euskaldunen artean, bizkaitarrak azkenak ala? Nafarrekin joan behar izan duzu bizkaitar batek Everesteko gailurra zapal dezan?

Ja, ja. Ez dakit. Batzuek txantxetan hala diote. Zorte kontua dela uste dut, hemen mendizale bizkaitar on-onak daude. Beraz, zorte txarra euki dugu orain arte.

Eta Everestera igotakoan... dena eginda al dago?

Everest beste maila bat baino ez da. Altuena, baina ez zailena. Orain Antarktida eta Ginea Berriko gailur bi egin nahi ditut. Neu aurrera noa. Neu mendira noa zezeren bila, nire barruan dagoen zezeren bila. Eta orain buruan Castle piramidea daukat eta ilusioz gainezka nago.

den eta granpoiak bertan nahastu zitzaizkidan. Bena hori askatze hutsak urduri jartzen zaitu, arnas hartzea aldatzen dizu. Neuk oxigenoaz igo nuen eta gero hegoaldeko gailurre-ra igotzea nahikoa kostata lortu nuen. Han goian ezin duzu pentsatu hemen legez. Buruak nahasten zaitu. Pentsatu nuen ez geneukala astirik jaisteko. Baina bageneukan. Eta gainera lau ordu eta erditan jaitsi nintzen. Ikaragarria, zinez.

Bidean eta gailurrean jende asko topatu zenuen, ezta?

Bai, tontorrean Juanito Oiarzabalegaz batu nintzen. Gora heldu eta hamar minutura han azaldu zen...

Arazoak euki zituen gero, erdi-itsututa edo jaitsi ei zen...

Neuk han ederto ikusi nuen, fresko. Lau pauso luze egin zituen gailurrera iristeko. Berehala esan zidan, "oye, espera", norbaitekin berba egin nahi zuen, jakina, neuk bezala. Neu gora heldu eta segituan hasi nintzen euskaldunen bila, baina

GALDERA LABURRAK

Liburu bat: Kanpo-basen irakurri nuena, *Los pilares de la tierra*.

Abesti bat: Yesterday.

Mendi bat: Pagasarri.

Herri bat: Lekuek ez naute lotzen, toki askotan nago gustura.

Janari bat: Mariskoa.

Mendizale bat: Iñurrategi.

Amets bat: Burura lehenengo etorri zaidana, askatasuna.

Euskararen aldeko jaietara jendea euskara bultzatzera edo ondo pasatzera doa?

EIDER (SANTUTXU)	ALAZNE (TXURDINAGA)	IRANTZU (BEGOÑA)
Euskara bultzatzera eta ondo pasatzera doa. Geuk horrela ikusi dugu	Bietara. Ondo pasatzera eta euskara bultzatzera. Eta ondo dago hori	Guztietara joan gara eta jendea gauza biengatik doa, ondo pasatzera eta euskararen alde egitera



SERGIO (PORTUGALETE)

Denetarik dago. Baina bada jendea euskara bultzatzera doana, ez ondo pasatzera. Bi aldeak batera egin daitezke.



ITXASO (BEGOÑA)

Idea oso ona da. Jende asko ondo pasatzera doa baina ondo dago euskara eremu akademiko-tik ateratzea.




IKER (SANTUTXU)

Jendea ondo pasatzera eta euskara laguntzera doa. Bietara.



ARKAITZ (BEGOÑA)

Jendea dibertitzera joaten da. Horretara bakarrik.



URTZI (TXURDIBAGA)


Jendea ondo pasatzera doa.

Hermanitas de los Pobreseko orubearen atontze lanak hasiak dira

Enpresa pribatu batek 500 etxebizitza, 900 autoentzako aparkalekuak eta 18.000 metro karratuko parkea egingo du

Ekainaren 11an Atxuri eta Santutxu arteko Hermanitas de los Pobreseko orubearen urbanizazio lanak hasi ziren. Antigu Berri enpresak 8.000 milioi pezeta gastatuko ditu 512 etxebizitza -gehienak babes ofizialekoak eta besteak libreak-, 900 autoentzako aparkalekuak eta 18.000 metro karratuko parkea egiteko. Obrak bi urte barru behar dute amaituta.

Bilbo barruko orube zabal huts baten atontze lanak dira hauek. Guztira 55.000 metro karratuko eremua da, euretarik 30.000 Udalarenak direla. Udalaren autua izan zen urbanizazio lanak enkantean atera eta eskaintzarik onenari ematea. Kasu honetan Antigu Berri enpresari. 512 etxebizitza egingo ditu, horietarik 293 babes ofizialeko erregimenean. Gainerako 219 pisuak libreak izango dira. Etxeok bi eta zazpi pisu bitartekoak izango dira, tokiaren arabera. Parkerako, esan legez, 18.000 metro karratu gorde dituzte, eremu osoaren herena. Eta aldatsak handiak direnez, ranpak atonduko dituzte paseoan dabiltzanen ibilerak errazagoak izan daitezten. Gainera, beste 4.000 metro karratu merkataritza jardunari gorde zaio, dendak gehien bat. Eta azkenik, 3.000 metro karratutan kirol instalazioak egitea pentsatu dute udal arduradunek. Obra eta Zerbitzu saileko zinegotzi Ibon Arésok esan legez, Bilbao Kirolakek -IMD- igerilekua egingo



Encarnación elizaren ostean lanak hasiak dira

du bertan obrak amaitu eta gero.

ETXEAK BOTA

Alderdi osoa urbanizatu behar dutela esan badugu ere, horretarako etxe zahar batzuek botako dituzte. Guztira 59 etxebizitzek lurrera joko dute, Ollerieta eta Basorako Bideko 17 etxetakoak. Auzo kaltetuek bertan babes ofizialeko beste etxe bat hartzeko eskubidea eukiko dute. Hala ere, horretarako urte bi eman beharko dute itxaroten. Gainera, tailer batzuk ere bota beharko dituzte, baita taberna bat ere.

Bilboko Udalaren planen arabera, behin obrak amaituta, Ollerieta, Atxuri eta Santutxu auzoen arteko harremana erraza izango da. Orain arte eremu horrek mugarena egin du Bilboko alderdi horien artean.

Gas Plazan 166 etxebizitza eta pilotaleku bi egingo dituzte

Bilboko Udalak hasieran pentsatu zuena baina etxe gehiago egiteko baimena emango du

Bilboko Udalak Gas plazaren itxura zeharo aldatuko du datozen urteotan. Orain gas fabrika zaharra, aparkalekua eta etxe batzuk daude Etxebarriako parkearen altzoan. Udalaren planek, oster, 166 etxebizitza eta profesionalentzako pilotaleku bi egin nahi dituzte. Horretarako hasieran pentsatu baino etxe gehiago eraikiko ditu ekimen pribatuak.

Hasierako asmoek 131 etxebizitza eraiki nahi bazituzten ere, azkenean 166 izango dira Udalaren planen arabera Gas plazaren inguruan altzaraziko direnak. Enpresa pribatuen esku geldituko da plan osoa gauzatzea. Horretarako zortzi eraikin lurrera botako dute. Haien artean daude Udaleko Gizarte Ongizate sailaren bulegoak eta Urak zerbitzuko eraikin zaharra, besteak beste. Behin Quintana kaleko zein Ernesto Erkoreka plazako etxe batzuk desagerrarazita, zazpi alturako etxe bi altzaraziko dituzte. Bertan 166 pisuak egongo dira, baita Gizarte Ongizate saileko bulego berriak ere. Merkataritzarako 2.670 metro karratu geldituko dira.

Gainera, lur azpian aparkaleku handi bat atonduko da, 478 eta 729 tokitakoa izan daitekeena, segun eta bi edo



hiru solairukoak egiten duten.

PLAZA ETA PILOTALEKUAK

Zazpi alturako etxebizitza bion artean plaza bat zabalduko da. Bertatik Diputazioak eraiki behar dituen pilotalekuetara iritsiko da. Pilotalekuok pilotari profesionalentzat izango dira eta, antza, bata palarako eta bestea trinkete gisa egokituko dituzte.

Pilotalekuon gainean anfiteatro bat atonduko dutela diote udal arduradunek. Bertan aire librean kultur ekitaldiak egin ahal izango dira. Eta ingurua txukuntzeko, berdeguneak ere egokituko dituzte.

Gainera, eskailera berriak egingo dituzte Zumalakarregi etorbideetik plaza berri horretara joateko. Zumalakarregiko igoera ere zabalduko da, trafiko jariora errazago abiatu dadin.

Gaur egun Gas plaza urbanizatu gabeko eremua da, hein handi batean. Gas fabrika zaharra dago, aspaldian zerbitzurik ematen ez duena, baita TAOko aparkalekua ere. Aparkaleku hori erabili izan da azken urteotan arrakasta handiz Aste Nagusiko rock kontzerturik indartsuenak egiteko.

BILBAO KIROLAK MALLONA ETA IBARSUSIKO FUTBOL ZELAIK TXUKUNDUKO DITU

Udan zehar Bilbao Kirolak-IMD udal erakundeak Ibarsusi eta Mallonako futbol zelaietan obrak egingo ditu. Bi zelaiotan egin beharreko lanek 228 milioi pezetako aurrekontua daukate.

Mallonakoan futbol zelaiko instalazioak zabaldu eta hobetuko dituzte. Gainera, aldagela berriak eraikiko dituzte bertan dabiltzan kirolarien beharrei egokituz. Ibarsusin ere aldagelak izango dira obraren helburua. Kasu horretan aldagelak handitu egingo dituzte.

Bi futbol zelaiotan obrak eginda dago Bilbao Kirolak-IMD erakundeaz azkenaldion. Izan ere, hala Ibarsusin nola Mallonan belar artifizialezko zelaiak atondu dituzte

KEXAK ETXEBARRIA PARKEKO JAIK DIRELA ETA

Etxebarria parkeko inguruan bizi diren auzo batzuk kexu agertu dira bertan egin ohi diren jaien ondorio latzak direla eta. Izan ere, Etxebarria parkean sarritan egin ohi dira hainbat festa eta ospakizun. Bertan bizi direnek zaratak eta aparkatzeko arazoak salatu dituzte.

Baina gehien arduratzen dutena da jai osteko panorama. Sarritan ospakizunen ondoren zikinkeria eta lohikeria nagusi dira parkean eta, batzutan, egunak ematen dituzte inguruok atzera ere garbi eta txukun egon arte.

Etxebarria parkearen inguruan bizi direnek udal arduradunei eskatu diete neurriak hartzeko eta parkea parke gisa baino ez erabiltzeko.

TAO sistema zapatueta ere indarrean jarri nahi du Udalak


Langileek greba egin zuten hilaren 28an aldaketen aurka agertzeko asmoz

Bilboko Udalak aldaketa handiak sartu nahi ditu TAO (OTA) sisteman datorren urtetik aurrera. Orain arteko ordutegia egunean ordu erdiz luzatuko da, zazpi eta erdietatik zortzietara. Eta hori gutxi balitz, zapatueta be txartela jarri beharko du autoa aparkatu gura duenak. Aldaketak iragarri eta segituan TAOko langileak kontra agertu ziren. Ekainaren 28an grebara atera ziren, euren lan baldintzen defentsan.

Bilboko Udalak ezarri nahi dituen aldaketa nagusiek TAO sistemaren zabalpena ekarriko dituzte. Esan legez, egunero ordu erdi beranduago amaituko da aparkatzearen truke ordaindu beharreko aldia. Gaur zazpi eta erdietan bukatzen da eta neurri berriak indarrean jarri orduko zortzietara arte luzatuko da.

Baina, duda barik, zer esan gehien ekarriko duena da TAO sistema zapatueta be zabaltea. Beste hiri batzutan horrelaxe dabilta aspaldian, Donostian kasu. Udal arduradunen ustetan, larunbatetan gidariak autoa edonon lagatzen dute eta, ondorioz, nahaste-borraste handia sortzen da, Bilboko erdialdean batez ere. Erabaki honen bitartez larunbatean Bilbo barruan automobilak ez erabiltzeko arrazoi sendo bat eman nahi dute.

Badira, hala ere, asmo hauen kontra azaldu direnak. Kritikoek TAO zapatueta zabalduaz Bilboko Udalak auto gidariak ez ezik merkataritza txikiak ere nabarmen kaltetuko dituela diote. "Errazago izango da Bilbotik kanpora joatea erosketak egitera erosketak horiek bertan egitea baino", azaltzen dute.



LANGILEEN LANUZTEA

Neurri berrion aurka TAOko langileak ere azaldu dira. Ordezkaritza sindikalek -ELA, UGT eta CCOO- informazio eza salatu dute, baita ordutegi berriek langileen lan baldintzak okerragotuko dituztela ere. Izan ere, Udalak ordutegiak luzatu nahi dituzte, langileen beldurra da euren lan orduak ere hein berean handiagotuko ote diren.

Horregatik, ekainaren 28an grebara atera ziren TAO berriaren kontra, hala ere, ekarriko dizkion ondorio txarren aurka. Langileek elkartzasuna eskatu zieten gidariei eta, ondorioz, egun horretan txartelik ez erosteko.



SANTUTXUKO AEK GUREAN BISITARI

Ekainaren 26an Santutxuko AEK euskaltegiko hamabost bat ikasle eta irakasle etorri ziren BERTONEko bulegora aldizkaria zelaz egiten den jakiteko asmoz. Azalpenak arreta biziarekin segitu zuten eta galderak egiterakoan euskara zeinen egoki darabilten erakutsi zuten. Agur esan aurretik pozarren jarri ziren argazkien aurrean. Eskerrik asko etortzeagatik eta nahi duzuen arte!

Behi koloretsuak mahatserrian ere

Karmelo eta Basarrate plazetan behiak jarri ditu Bilboko Udalak



Bilbo uriaren fundazioaren zazpigarren mendea dela eta, Bilboko Udalak 175 behi ipini ditu kaleetan. Gehien-gehienak Bilbo erdian kokatu badituzte ere, gure artean ere badira batzuk. Zehatzago esanda, behi artistikook Karmelo eta Basarrate plazetan jarri dituzte. Arazorik ez balego, iraila bitartean hortxe iraungo dute, Aste Nagusiko bederatzigarren egunak izan ezik. Behiok Zurich hirian sortutako ideia baten ondorio dira. Suitzako bazter hartan erakusketa baterako erabili zituzten, eta berehala beste hainbat tokitan kopiatu egin zuten ideia hura. Gurean jarri dituzten behiak beira zuntzekoak dira eta hiru motakoak dira: etzanda dagoena, belarra jaten dagoena eta burua tente daukana.

Animaliok dekoratzeko askatasuna eman zuten Bilboko Udalak, betiere gustu txarreko mezuak alde batera utzita. Ondorioz, artista ospetsuek zein hasi berriek

egin dituzte dekorazio lanok. Kasu batzuetan enpresek erosi dituzte eta behi bakoitza eurek nahi izan duten artistari eman diote.

Basarrate plazako behiak hiru dira. 160 zenbakiduna Karle Arranzek margotutakoa da. 161 zenbakiduna, ostera, Silvia Garcia Lusaren ardura izan da. Kasu biotan BBKk babestu ditu. 162 zenbakiduna, azkenik, hiru lagunena lana izan da: Edurne Herran, Iban Arroniz eta Jose Mari Burgos. Horren babeslea Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza saila izan da. Karmelo plazakoan artean bat Kaiku esne enpresak ikastolako umeei emandakoa dugu.

ARAZOAK

Behiok ekainaren erdialdean ipini zituzten Bilboko kaleotan. Hilabetea amaitu aurretik, ostera, berrogeiren bat ale kaltetuta zegoen. Arriaga plazako bat Ibaizabaleko uretara bota ere egin zuten. Hala ere, Bilboko Udalak kaltetutako behiak hartu, konpondu eta atzera be kalean jartzeko asmo irmoa agertu du.

UDAKO OPORRAK EUSKARAZ EMATEKO LAU AUKERA EDER

Aurten lau dira BERTONEkin harremanetan jarri diren elkarrekin udako oporrak euskaraz egiteko aukera emanez. Besteak beste, Polonia eta Txekia, Britainia eta Herbehereak ezagutzeko parada ematen dute. Eta gure mugak igaro barik, Pirineotan kanpinean egoteko edo Euskal Herrian zehar ibiltzeko moduan egongo da horretarako grina eta gogoia duenak. Hala ere, kasu guztietan bidaiak edo egonaldiak euskara hutsez egingo dira.


Gure herritik kanpo ibili gura duenak aukera bi ditu. Batetik, uztailearen 31tik Aste Nagusira bitartean Britainia, Belgika eta Holandan barrena ibiliko dena. Ibiltari agentziak eta Deustuko Berbaizu euskara elkarteak antolatu dute. Carnac hiria, St. Malo, Mont Sant Michel, Gante, Brujas, Brusela, Amsterdam eta Futuroscope bisitatzeko moduan egongo dira bidaiariak. Prezioa 28.900 pezetakoa da, bertan autobusa eta txangoak sartuta daudela. Gero, tokian tokiko kanpinak aparte ordaindu beharko dira, aldeztu aurretik erreserbatuta badaude ere.

Bigarren aukerak Polonia eta Txekia eramango ditu gure bidaiariak. Irteera abuztuaren 11an egingo dute eta hamazazpi egunez luzatuko da. Berlin, Varsovia, Krakovia, Auschwitzeko sarraskitze-esparrua eta Praga ezagutuko dituzte, besteak beste. Antolatzaileak Ibiltari agentzia eta

Gasteizko Bagare elkarteak dira. Prezioa 38.900 pezetakoa da, aurreko bidaiaren baldintza berdinetan.

BERTOTIK URTEAN BARIK

AEK kirolarientzako aukera ederra prestatu du: Euskal Herrian zehar bizikletaz. Gernikatik irtenda eta Gernikara atzera etorrita, bazterrik bazter ibiliko dira gurean abuztuaren lehenengo hamabostaldian. Baldintza bakarra euskalduna izatea da. 28.000 pezeta balio du, gosaria eta kanpina barne. Azkenik, Zenbat Gara elkarteak Nafarroako Pirineotako bihotzean oporraldia euskaraz egiteko gonbitea bota du. Aurizberriko Urrobi kanpinean egongo dira uztailearen 15etik abuztuaren 5a bitartean. Gutxieneko egonaldia lau eguneko izango da. Lekuaren ederrari eta kanpinaren hornidurari Zenbat Garako kideek antolatutako kirol, jolas eta musika saioak gehitu behar zaizkie. Besteak beste, Anje Duhalde eta Juan Antonio Urbeltz pasatuko dira bertatik. Erreferentzia gisa, bi heldu bi umerekin batera astebete batentatik 30.500 pezeta ordaindu beharko dute. Interesatuta bazaude, deitu bete barik Ibiltari agentziara (944472526), Berbaizu euskara elkartera (944471042), Zenbat Gara elkartera (944237591) edo AEKren edozein euskaltegiara.



Umeak Bertsoetan

Ekainaren 1ean Bilboko eskoletako umeak Txurdinagako eskolan batu ziren bertsoetan egiteko

Karmelo ikastolako ikasleak bertsolariekin ikasgelan.

Bilboko ikastetxe askotako hainbat umek bertsoak egiteko trebezia erakutsi zuten ekainaren 1ean Txurdinagako eskolan. Arratsalde batez bertsolari gaztetxoenen bilgune bihurtu zen aipaturiko kastetxea. Giro paregabea bizi izan zen eta eguraldi apartak ere honetan lagundu zuen.

Testua: *Joana Etxebarria*

Umeek beraien ikastetxeetan bertso munduarekin kontaktuan jartzeko beta izaten dute. Hau aukera paregabea da familia giroan bertsozaleasuna bizi izan ez dutenentzat, modu honetan bertsolari gertuagotik ezagutzeko posibilitatea dutelarik. Bertso eskolek lan handia egiten dute bertsolari suspertzeko eta ahalegin horretarako zenbait aktibitate prestatzen dituzte. Hauetariko bat Txurdinagako eskolan egin zena izan zen. Topaketa honetara eskola bakoitzetik lau bat ume joan ziren.

EKINTZAK

Arratsaldeko hirurak inguruan ume guztiak mahai batzuen inguruan bildu ziren arkatza eskuan eta papera


aurrean zeukatela. Denak urduri antzean, interes eta sormen handiarekin ederto baten egin zituzten proposaturiko ariketak. Lehenik eta behin errima batzuei egin behar izan zieten aurre (dizdira, begira, dira, mendira) eta hau gaitu ostean hasiera eginik zuen bertsoa bukatu behar izan zuten. Amaitzeko, gai bezala oporrak harturik bakoitzak bertso libre bat egin behar izan zuen. Denek gogotik egin zuten lan eta beraien trebetasun eta bertsolari sena ageri agerian utzi zuten. Ordubete inguru horren kontzentratu eman ondoren neska-mutikoen erlaxatzeko aukera izan zuten patioan. Bertan, Aitor eta honen gitarraz lagundurik kantu ezagun asko abestu zituzten. Ondo pasatzeko

Pa...Ya JO TA KE OTXARKOAGA EUSKALDUNDU ARTE

OTXARKOAGA

Pa...Yak baditu alternatibak

unea izan zen eta igarotako tentsio unea erabat ahazteko aldarte goxoa. Kantuz kantu aurpegi irribarretsuak baino ez ziren ikusten. Ekitaldiarekin jarraitzeko bi bertsolari izan ziren, baina hauek nagusiagoak. Markinako eta Santutxuko bertso eskolako neskato bi hauek umeen ariketa bera egin zuten baina arkatza eta paperaren laguntzarik gabe. Horrela, bapateko bertsoak abestu zituzten umei jarritako errima eta gai berberekin. Era honetan gaztetxoek aho zabalik gelditu ziren hauen arintasunarekin. Baina lasai egon daitezela denak, ziur etorkizun ez oso urrun batean eurak ere bertsolari hauek bezala edo hobeto jardun ahal izango dutela bertsoetan.



Bilboko ikastetxe askotan ematen dira bertsolariak eskolak.

SARIEN ORDUA

Sariak aipatzen direnean umeak ero moduan jartzen dira zeozer irabazi ote duten bere buruari edo irakasleari galdezka. Oraingo honetan denek eduki zuten oparitu bat, baita irakasleek eurek ere. Sari banaketan "Bizkaiko Bertsozale Elkarte" lehendakaria den Iñaki Aurrekoetxea, Bilboko eskolatan maisu lanean dabiltzan Etxahun Lekue, Josetxu, Aitor eta Enbeitatar familia ospetsuko Zihara Enbeita egon ziren.

Gisa honetan, inor ez zen etxera esku hutsik joan. Ume bakoitzak kartera polit bat irabazi zuen eta irakasle arduradunentzat Xabier Amurizaren Bizkaiko bertsolari buruzko bi liburu oparitu ziren. Guzti honetaz gain ikastetxe bakoitzaren izena zuen diploma bat entregatu zitzaion ikastetxe bakoitzari, Igor Elortza Bizkaiko txapelidunak eginiko bertso batekin.

BASTERTXU

TABERNA

Ricardo Bastida plaza

DAYTON

Kanpoko garagardoak
Ronak eta txokorrak aukeran

www.bilbaoweb.com/dayton

Sugea taberna

Iturriaga, 92 Santutxu

GOLIAN S.C.L.

LAN BERTIKALAK

Pintura lanak etxaurre eta patioetan
Ke-irteerak eta Ur-hodiak
Eraikinetako edozein konponketa

ANDAMIO BARIK

TELEFONOAK:

630 08 09 38
659 45 16 22

SANTUTXU SPORT

SANTUTXUKO ATLETISMO TALDEAK NAZIOARTEKO HAINBAT KIROLARI BILDU ZITUEN ZORROTZAN

Testua: Unai Cuevas

Joan den ekainaren 23an Zorrotzako kiroldegian lehen "Bilbo Hiria" nazioarteko atletismo bilera egin zen. Maila handiko kirolariek parte hartu zuten proba hau Santutxuko Atletismo Taldeak antolatu zuen. Euskaldunei dago-kionez, Edmontoneko mundialerako markaren bila zebiltzan Amaia Piedra, Cristina Petite eta Estibaliz Urrutiarekin batera, Víctor Rojas, Txomin Martín, Igor Murga, Alejandro García-Acedo edota Marta Mendiak parte hartu zuten, besteak beste.

Estatuko zein atzeritarren artean Teresa Recio, Jacqueline Martín, Rocío Ríos, Felicia Tilea, Verónica De Paoli, Bryan Tracy, Bouazza el Mastati, Manuel Damiao, Frutos Feo, Paul Egonye, Oluyomi Sule, Roberto Moya bezalako izenek ospea eman zioten probari.

Honela, Alfonso Etxanobek, Santutxu Atletismo Taldeko kideak, "egutegia oso beteta dagoen egunak direla kontutan hartuz partehartzaileen mailarekin oso pozik gaude" adierazi zuen. Gainera, proba batzutan uste baino izen emate gehiago izan zituztela aitortu zuen. Honekin batera, jaurtiketak bultzatu nahi izan zutela aipatu zuen, "tramankuluok inoiz baino urrutirago hegan egingo dute".

ASPALDIKO IDEIA

Era honetako lasterketa bat antolatzearen ideia aspalditik dator eta Santutxuko Atletismo taldeko presidente Alex Carnerosek emandako pausua probaren aurkezpena egin zen egunean azaldu zituen. "Pasa den urteko ekainuztaila aldera erabaki genuen bilera hau aurrera eramatea, Euskadiko Atletismo Federazioko Txemi Tejedorri planteatu genion ideia eta pentsatu gabe egin beharra zegoela erantzun zigun. Ondoren, Foru Aldunditik, Bil-

Athleticek Santutxuri irabazi zion Euskadiko Kopako finalean

Euskadi Kopako finalean, Athleticeko talde jubenila eta Ohorezko Mailan dabilen Santutxuko taldearen arteko norgehiagokan, zuri-gorriak gailendu ziren "urrezko gol" baten bidez. Mallonan jokaturako partidari joko erakusgarria eskaini zuten talde biek eta 90 minutuak husna bukatzeak egondako parekotasunaren isla dira. Baina, Felix Sarriugarteren mutilak fisikoki hobe ailegatu ziren luzapenera eta laugarren minutuan David Olabarrietaren gol batek Kopa Athletici eman zion.

Zuharrakek ohorezko mailari agur esan dio

Gurpilen gaineko Zuharrak taldeak, Ohorezko mailari agur esan zion, azken partidari Valladolideko Aspaim Airtelen

Irabazleak

Gizonezkoak:

100 metro: Jon Gutiérrez (10.57)

400 m.: Niang (47.56)

800 m.: Pablo San Martín (1.50)

1.500 m.: Txomin Martín (3.44.14)

5.000 m.: Marco Rufo

110 m. hesiak: Fran López (14.29)

Xabalina: Alejandro García (71.11 m.)

Diskoa: Jesús Cambor (50.59 m.)

Jauzi hirukoitza: Oluyomi Sule

Altuera: Javier Villalobos

Emakumezkoak:

100 metro: Felipa Palacios (11.49)

400 m.: Norma González (54.30)

1.500 m.: Zulema Fuentespila (4.26.03)

5.000 m.: Teresa Recio (15.30.59)

Xabalina: Felicia Tilea (60.13 m.)

Altuera: Marta Mendiá (1.86 m.)

Luzera: Vanessa Peñalver (6.07 m.)

boko Udaletik eta Eusko Jaurlaritzatik laguntza jasotzen den eredu".

Bestalde, antolatzaileek zein lehen "Bilbo Hiria" nazioarteko bilera aurrera ateratzen lagundu dutenek Bilbon maila honetako meetingak egitearen alde azaldu ziren. "Jarraipena izan behar dute" aldarrikatu zuten.

kontra 41-70 galdu eta gero. Porrot honekin, Txurdinagako Kiroldegian entrenatzen duen taldeak bere benetako indarra erakutsi izan ez duen denboraldi kaskar bat bukatu du. Bakarrik sei jokalarirekin hainbat entrenamendu egin ostean eta beste taldeen aurrekontu eta jokalaririk profesionaleraino parekatuz ezer gutxi egin ahal izan du. Hemendik aurrera datorren urteko denboraldia prestatzen hasi beharko dira, bertan Zilarrezko Mailan arituko dira eta belaunaldien erlebia izango dute gaitzitu beharreko oztopo nagusia.

Santutxu H.T., Euskadiko kopako txapeldun

Santutxuko Hockey Taldeak Euskadiko Kopa txapelketa eskuratu zuen penaltietan Jolaseta gaitzitu ostean. Basarretekoak 0 eta 4 aurreratu ziren baina, bigarren zatian, Jolaseta markagailua berdintzea lortu zuen. Bukaeran, penaltien loteriak Mahatserriko taldeari garaipena eman zion.

UBIXETA (1.106 M)


OROZKOKO ARBAITZATIK

Orozkotik Altubera doan errepide-tik, behin Zubiaur igaro eta hiru kilometrotara, 28 km dioden muntarria (A) baino apur bat aurrerago baserri multzoa dago eskuin aldean eta zubia ezker aldean. Zubi hori zeharkatu eta lehen baserri multzoaren (Astepe) inguruko San Isidoro eleizaren albotik pasatu ostean errepidea berehala zementuzko pista bihurtzen da. Pista hori gorantz doa eta laster bitan banatuko da. Eskuin aldekoa hartuko dugu eta aurrera segi zementuzko pista amaitu arte. Bertan hiru-lau baserri dago. Arbaiza-korta (B) auzoa da. Hementxe utziko dugu autoa.

Hemendik aurrera oinez egingo dugu. Bertatik ikusten den Arbaiza-goitia baserriantz abiatuko gara. Burdina-ura isurtzen duen iturriaren ondotik beherantz eta gero bi horma arteko bidetik jaitsiko gara errekatxo bi elkartzen diren tokiraino. Apur bat aurrerago hiru pista ikusiko ditugu (C). Ezkerretik gorantz doana hartuta, bost minututara beste bidegurutze batera helduko gara. Berriz ere ezkerrekoa aukeratu dugu. Laster burdina-ura isurtzen duen iturria ikusiko dugu eta apur bat aurrerago beste bat.

Hainbeste pista dagoenez, bakarrik norabidea esan dezakegu. Beraz, pistarik pista beti gorantz joango gara pinudia amaitu arte. Ondoren, larrean zehar Korleta lepora iritsiko gara (D). Inguru horretan eta muino baten gainean harrespila ikus dezakegu, baita bertako trikuharria ere. Hemendik eskuin aldeko bidetik segituko dugu Nafarkorta mendirantz. Bideko lautada batean etxola dago eta apur bat geroago Nafarkorta mendi tontorrera heldu baino lehen lepo batean Araneko Harria dago (E). Ondoko oroitarran kondaira hauxe dago idatzita: "El lobo se comió a una chica, caserío Arane-Pikaza Garai-Orozko 1309 urtea".

Toki horren ondoan bide zabal bat dago, marka zurigorriez nabarmendua. Garrastatu baselizatik eta Altube mendatetik dator. Behin hortik jarraituta, bidebanatze batera iritsiko gara laster. Eskuinaldetik gorantz doana Odoriaga tontorrerantz doa. Bestea,



ostera, etxola eta harresi batzuk dauden alderantz. Bertara ailegatutakoan, larrean zehar igoko gara eta Orozkotik Odoriagara doan pista zeharkatu ostean Ubixeta tontorra lortuko dugu.

Ibilbide osoa, ordu bi.

Azken aldapan harri pila bat eta zutari bat dago. Orozkotik Odoriagara doan pistatik etxola pasatu eta gero, Ubixeta tumulua dago eskuin bazterrean. Etxolaren behealdean, harresi baten alboan, iturria dago.

Oihana Bartra, Bizkaiko eskola arteko bertso txapelketan irabazle

Iaz ere lehenengoa izan zen hamabost-hamasei urteko bertsolarien artean



Bizkaiko Eskolarteko Bertso Txapelketako finalistak, garaikurrak eta guzti

Ekainaren 8an Oihana Bartra Bizkaiko Eskolarteko Bertso Txapelketako finalean irabazle atera zen hamazazpi eta hamazortzi urteko sailean. Balentria horrekin gazte mahatsorriak aurreko urteko jardunaren emaitzari eutsi zion, iaz ere bere kategorian -hamabost eta hamasei urtekoetan- lehena izan baitzen. Txurdinagako Kirikiño ikastolan eta Santutxuko Bertso Eskolan landu du promesa horrek bere bertso teknika.

Testua: J. Larrazabal

Ekainaren 8koa saio polita suertatu zen. Bizkaiko finala Indautxuko El Carmen aretoan jokatu zuten eta bertsozaleen babesak ez zuen hutsik egin. Ezta bertsolarien jarduna ere, atal guztietan maila politetan aritu baitziren bizkaitar koplari gazteok. Adituek diotenez, nagusien sailean ez zen sorpresarik izan

eta, ondorioz, Oihana Bartra atera zen irabazle. Haren atzetik Lander Ibarluzea sailkatu zen. Neskatila mahatsorriak eta mutil etxebarritarrek ekainaren 30ean egiteko zen Euskal Herriko Txapelketako finalerako txartela erdietsi zuten. Oihana Bartra Begoñakoa da. Hamazazpi urte ditu

eta bertsozaletasuna txiki-txikitatik landu du. Lehenengo, Txurdinagako Kirikiño ikastolan. Berandua-go, Santutxuko Bertso Eskolan. Eskolarteko txapelketetan ez ezik, Bilbao Bizkaia Kutzak (BBK) azken urteotan eratutako sariketetan ere ederto moldatu da orain artean.

Hamabost eta hamasei urtekoen artean Iker Gangoi-ti mungiarra eta Maider Martinez igorretarra gelditu ziren, hurrenez hurren, lehen eta bigarren. Txikietan, azkenik, Jon Agirre zornotzarra txapeldun atera zen eta Imanol Aldazabal Berriatukoa txapeldun orde.

Guztira txapelketan ehunen bat gaztek eta gaztetxok hartu dute parte. Oihana Bartra nagusitu den sailean hamabi bat izan dira partaideak. Beste horrenbeste hamabost-hamasei urtekoetan eta hirurogeita hamaretik gora txikien atalean. Denak Bizkaiko ikastetxe eta ikastoletan dihardute ikasten eta bertan hartu dituzte bertso jardunerako lehenengo eskolak. Harrobi lana egiten ari dira azkenaldion eta, benetan, emankorra dela esan dezakegu beldu barik.

FINALA


Lerro hauek irakurri orduko finala jokatuta izango

da. Ekainaren 30ean egitekoa zen Mungian. Finalean, esan legez, Oihana Bartra eta Lander Ibarluzea izan behar ziren bizkaitar ordezkariak nagusien mailan. Orotara euskal herrialde guztietako bertsolariak ziren parte hartzeok, Zuberoa izan ezik. Oro har mailarik altuena Gipuzkoari dagokio, baina azken urteotan Bizkaia nahikoa indartsu dabil eta Arabak, Nafarroak zein Lapurdik aurrerakada han-

“Oihana Bartrak hamazazpi urte ditu eta Kirikiño ikastolan zein Santutxuko Bertso eskolan trebatu da”

diak egin dituzte.

Txapelketaren garrantziaren berri datu batek ematen du. Azken urteotako bertsolarien elitea txapelketa horretako emaitza da, bi izen handi izan ezik: Andoni Egaña eta Jesus Mari Irazu. Beraz, Mungia-ko finalean batu ziren bertsolari gazte horietako asko datozen urteotan bertso planetako izarrak izan daitezke. Hala bedi!



Biktimganako Laguntza Zerbitzua
Servicio de Asistencia a la Víctima

Zeurekin gaude

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

JUSTIZIA, LAN ETA GIZARTE SEGURANTZA SAILA
Giza Eskubideen eta Justiziarikiko Lanikidetzareko Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE JUSTICIA, TRABAJO Y SEGURIDAD SOCIAL
Dirección de Derechos Humanos y Cooperación con la Justicia

INMOBILIARIA

Gelaya

HIGIEZINEN KUDEAKETA - EROSKETA-SALMENTA - ALOGERAK - ...

Iturriaga, 92
Tfnoa: 94 473 07 78
48004 SANTUTXU - Bilbo

Bikoitz

ARROPAK ★
ZILARRA ★
OPARIAK ★

Part. Arsuaga SANTUTXU
Tel & Fax: 473 42 88 • 48004 BILBO
bikoitz@euskalnet.net / www.euskalnet.net/bikoitz

MESÓN

URETXE

Santutxuko poteo gunean

- Aries:** martxoaren 21etik apirilaren 20ra.
Udako beroek zorabiatzen zaituzte? Hau hasi baino ez dau egin, motel!
- Taurus:** apirilaren 21etik maiatzaren 20ra.
Egoskorra zara bai. Buru handi hori estaltzeko txapela kilometrikoa behar dozu...
- Gemini:** maiatzaren 21etik ekainaren 20ra.
Urtebetzea pasatu zan eta inor be ez zan konturatu. Lasai, geuk bai: Zoriooonak!!
- Cancer:** ekainaren 21etik uztailaren 20ra.
Interneten ordu larregi emoten dozuz. Ez egin kasurik ordena-gailuari eta atera zaitetz eguzkitan tostatzera...
- Leo:** uztailaren 21etik abuztuaren 23ra.
Beti ariniketan batetik bestera! Aurrekoan erdilo eta orain zoro lez. Lagun, ez bata eta ez bestea. Oreka erdian dagola esaten euskun duke jaun harek, Suarezekoak.
- Virgo:** abuztuaren 24tik irailaren 23ra.
Santutxuko jaiak ez dira munduan dagon gauza bakarra. Badi-ra be Justugune, Gasteizko jaiak, Aste Nagusia, Lekeitioko jaiak, Bermeokoak, ...
- Libra:** irailaren 24tik urriaren 23ra.
Kilo asko galduta zagoz aurreko hilabetetik ona! Zuk bai ongi etorri polita udari. Bazkari batekin ospatuko dozu, ezta?
- Scorpius:** urriaren 24tik azaroaren 23ra.
Zure bizimodu latza albo batean laga egizu behingoz. Egu-nero beharrean goizetik gabera arte. Aberatsek aspaldin des-kubridu eben hori ezin leike ona izan.
- Sagitaris:** azaroaren 24tik abenduaren 23ra.
Mundua alderik alde egin behar ei dozu udan zehar. Terrazatik ondo zagoz? Udak atseden hartzeko asmatu ziran, ez lan-dan ibilteko!
- Capricornius:** abenduaren 24tik urtarrilaren 20ra.
Zelan izan leike Gabonak faltan botatzea udabetezko beroan? Ezta Olentzeroren opariak be ez dau holangorik justifiketan...
- Aquarius:** urtarrilaren 21etik otsailaren 18ra.
Eguzkirako crema zelan igurtzi ikasteko ikastaroan apuntatu behar dozu, lagun. Ezin dozuz beste berrogei urte emon hondartzan barregarri gelditzen.
- Piscis:** otsailaren 19tik martxoaren 20ra.
Datozen asteotan loteria tokatuko jatzu, berrehunen bat kilo, Bidaia zoragarria egingo dozu eta bertan zure bihotzeko kuttu-na ezetuko dozu. Osasuna be primeran. Badakizu, asmatzen badogu deitu behar doskuzu geuri be aginaldoren bat emoteko. Baina predikzi-no hauetatik bakarra garantizetan dogu: Osasunarena.

agenda

UZTAILAREN 5
KONTZERTUA KAFE ANTZOKIAN.
KOMA TALDEAREN ZUZENEKO
DISKOAREN GRABAZIOA.
GAUEKO HAMARRETAN.

UZTAILAREN 5-7
GETXOKO JAZZ JAIALDIA. XXV.
EDIZIOA. ALGORTAN.

UZTAILAREN 5-7
FELIPE LOZAREN BAKARRIZKETA.
"MISERO PROSPERO".
DEUSTUKO LA FUNDICION ARETOA.
HIRU EGUNEZ.

UZTAILAREN 9-13
BILBAO, ARTE ETA KULTURA
BIGARREN TOPAKETAK. GOIZEZ
ETA ARRATSALDEZ HITZALDIAK.
TOKIA: EHU/UPV-BBKREN EGOITZA.

UZTAILAREN 13-15
LEKEITIOKO KALE ANTZERKIAREN
JAIALDIA. HIRU EGUNETAN ZEHAR
HAINBAT ANTZEZLAN
HERRIKO KALEETAN.

UZTAILAREN 14-15
ASTURIESEKO SELLA IBAIAN
BEHERA PIRAGUAZ.
EGUZKI LORE MENDI TALDEA.

UZTAILAREN 14-22
SANTUTXUKO JAIK.

UZTAILAREN 22
MADDALEN JAIA
ELANTXOBE ETA BERMEON.

UZTAILATIK IRAILA BITARTEAN
GAUERO HAMAR ETA ERDIETAN.
LABURMETRAIA BEGOÑAKO
ERREPUBLIKARI BURUZ. BILBOKO
ZAZPIGARREN MENDEURREN
OSPAKIZUNEN BARRUAN.

